


ION IDIGORAS: "TXIMELETEN MUNDUA EZAGUTU EZKERO, LILLURAGARRIA DA"



Ion Idigoras lanean kontzentratutik.

Askok daukagu afiziño edo zale-tasun izkuturen bat, ume umetatik hasitxa luzaruan heltzen dautsegunari. Ion Idigoras ermuarrak badaki honen barri. Margotzen ta tximeletak batzen emon ditxu batek daki zenbat urte.

Oleo, kaballete eta esbozoz betetako bere etxeko gela baten, 800dik gora tximeleta ditxu kuxetan sailkauta, argitxasunak koloriei kalterik ez daien ein, ilunpian gordeta.

Edo bere tximeletarik maitxatuena, liburuetan bez agertzen ez dan txikitxo bat dala.

Batzuk itxuran bardiñak diala emon arren, hartutako tokixak eta sasoia, jaten ditxuezen lorak, desbardiñak eitxen ditxuezen, nahiz eta espezie batekuak izan.

Gauza kurioso asko kontau dosku: jaixokeratik tximeleten arduria ar-emiak topatzia dala. Emia hartzeko orduan, ar batek aurria hartzen badoutso beste bati, honek lorarik lora ekitzen dau. Egan, beti leku bardiñetik eitxer-eran, bakoitzak bere txokotxua errespetau eragitzen dau, eta emiari maitxasun habixia gordetzen doutsie, lorarik ederrenez jantzitzako pasaisu bat.


Edo Anboto ta Aizkorrin, atxartian, 1.000 metrotik gora eitxen dabentximeleta arraru bat dagoela, millaka urtetan (terziariotik) itxuran ezebez ez dana aldatu.

Edo bere tximeletarik maitxatuena, liburuetan bez agertzen ez dan txikitxo bat dala.

Euskal Herrixan entomologo, tximeleta zale, gitxi dagozala diñosku;

ganorazko mapa ein barik dauala: "jakitxeko nun daoan, zelakuak dian, ze jaten dabent... batzuk harrapatzia nahi ta nahiezku da".

Jentiak akabatzailetzat ditzuela kejatzen da, baiña "gauzak barrutik ez ezagutziaren herbeta moduak dia.




Ionen tximeleta bilduma zabal eta bitxia da oso.

Zeozar esaten hasten nazenian, asko aho zabalik geratzen dia. Eitxen dabent gorputz aldakeria (metamorfosia), ar-emiaren desberdintxasunen

zergaitxia, koloreen aberastasuna... tximeleten mundu hau lilluragarri eitxen dabe edozeinentzat" gehitzen dosku pozik.

Behin ta berriz esan dosku ez ditzula sekula hartzen hutsagaitxik, kuxak pillatziarren hartu: "ni nun ta zelan bizi dian, zer jaten dabent arduratzen nau. Airian doiazala ezagutzen ditzut, inguruan dagozan loren-gaitxik, egan eitxeko modu-gaitxik"

Tximeletan munduan sakonian sartzeko aitxakixakin, paraje ugari eta baztar askotako landurak, arbolaskak eta lorak



Tximeletez gain, margotzea du hobbya.

ezagutzeko aukeria euki dau: "nik mendirutz jo dot beti. Benetako basautza izan naz".

Sentsibilidade ekologista jente askok daukala aitzatu dosku, baina "landara batekin disfrutatzen, berezkua euki bihar da. Baso bat erretzen darian, beste pertsona bateri beste pena emoten dosta, baina nik badakit hau ta beste tximeleta klase erre diala pagadi edo artadi horrekin batera, ta doble pena

hartzen dot, bateron bat lore txorta bat hartzen ikusten dotenian moduan".

Tximeleten gaiñian jakin beharrekuak

- Bizirik 15-40 egun besterik ez dabe irauten.
- Gorputzian ehundaka uletxo daukie.
- Kilometruetara usaintzen dia alkarri.
- Hiru bider aldatzen dabe gorputza: oruga edo boldarra dia lehenengo, gero krisalida, tximeleta izaten amaitzeko.
- Arra dotoria ta txikixa da, ta adar senduanak dakaz.
- Emia haundixaua da (aldian arraultzak ditzula jaixotzen da) ta kolore ilunauak ditxu.
- Eguneko ta gabeko tximeletak dagoz.

Estibalitz Gonzalez Argazkiak: Raul Bogajo



DROGETENITTURRI iragarkiak

60x85 mm. = 2.000 pzta.

QUETZAL

Opari denda Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62



Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32



Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatua • ☎ 77 05 98

OKINDEGIA Ignacio Peña

Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea ERMUA

Urdaitegia
MAITE
Merkatu Plaza, 40
Telefona: 17 24 12

TXALAPARTA
TABERNA
Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun